

203/1992 DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, Ingurugiroarekiko Hezkuntza eta Ikerketa Zentruen eta Pedagogi Aholkutegien sorrera eta ihardutze modua arautzen dituzten Dekretuak aldatzen dituena.

Kontutan hartuz Irakaskuntza Funtzio Publikoaren Ordenazioak beharrezkoa den egungo irakasle laboralen erregulazioa suposatuko duela, irakaale hauek irakasle funtzionario izatera pasatzeko zentzuan, kolektibo desberdnen tratamendu uniformearen aurreratzea komenigarri ikusten da pertsonal laboralaririk irakaskuntzari laguntza ematen dioten Zentru eta Zerbitzuetan dauden lanpostuetara sartzeari utziz, nahiz eta orain arte lanpostu hauek, Ingurugiroarekiko Hezkuntza eta Ikerketa eta Zentruen eta Pedagogi Aholkutegekin sorrera eta ihardutze modua arautzen dituzten ekainaren 14eko. 154/1988 (EHAren 1988ko ekainaren 24eko 122. alea) eta irailaren 19ko 202/1989 (EHAren 1989ko urriaren 19ko 186.alea) Dekretuaren egindako erregulazioa dela eta irakasle Kidegoetako karrerazko erregulazioa dela eta irakasle Kidegoetako karrerazko funtzionarioei errezerabatuta egon.

Horregatik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren proposamenez eta Gobernu Batzordeak 1992ko uztailaren 21ean egindako bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren.

XEDATU DUT:

1. atala.- Hurrengo Laugarren Xedapen Iragankorra, Pedagogi Aholkutegien sorrera eta ihardutze modua arautzen dituen ekainaren 14eko 154/1988 (EHAren 1988ko ekainaren 24eko 122. alea) Dekretuan sartzeari:

LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Lege Biltzarraren Lege bidez Irakaskuntza Funtzio Publikoaren ordenazioa aurrera eramaten ez de bitartean, Pedagogi Aholkutegetako lanpostuak irakasle funtzionarioen edo bai Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren zerbitzueko lan-hitzarmeneko langile laboralen bidez bete ahal izango dira.

Langilego honek dagokion aldi-baterako erreimena izango du, Dekretu honetako 10. atalak esaten duen bezala, aurretik betetzen zuen plaza eta destinua gordez, eta Talde Multiprofesionalen lanpostuen kasuan behin-betiko erregimen izaera izango dute, aipatutako 10.atalak aurriztatu duen bezala jatorrizko plaza galduz.

Lanpostu hauek betetzen dituzten langile laboralen ordainsari orokorra, lanpostu horiek betetzen dituzten funtzionarioentzat ezarritako bera izango da.»

2. atala.- Hurrengo Xedapen Iragankorra, Ingurugiro arekiko Hezkuntza eta Ikerketa Zentruen sorrera eta ihardutze modua arautzen dituen irailaren 19ko 202/1989 (EHAren 1989ko urriaren 19ko 186. alea) Dekretuan sartzeari:

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lege Biltzarraren Lege bidez Irakaskuntza Funtzio Publikoaren ordenazioa aurrera eramaten ez den bitartean, Ingurugiroarekiko Hezkuntza eta Ikerketa Zentruen lanpostuak irakasle funtzionarioen edo bai Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren zerbitzueko lan-hitzarmeneko langile laboralen bidez bete ahal izango dira.

Langilego honek dagokion aldi-baterako erregimena izango du, Dekretu honen 5. atalak esaten duen bezala plaza eta destinua gordez.

Lanpostu hauek betetzen dituzten langile laboralen ordainsari orokorra, lanpostu horiek betetzen dituzten funtzionarioentzat ezarritako bera izango da.»

AZKEN XEDAPENA Dekretu hau Guskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz. 1992ko uztailak 21.
Lehendakaria
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.
Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua
FERNANDO BUESA BLANCO.